

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Tailer bat, bi bisita, hiru erakusketa, hiru kontzertu, lau zine-proiektzio, egoitza artistiko bat eta antzerki-ikuskizun bat hartuko ditu

Astelehena, 2018.eko urtarrilak 8

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu urtarrilaren 8tik 14ra bitarteko asterako:

“Yo, la peor de todas/Ni, denetan okerrena” erakusketa-proiektuaren inguruko jarduerak jarraituko dute aste honetan ere. Batetik, topaketa bat egingo da Maite Garbayo komisarioarekin Nafarroako Museoan, asteazkenean, eta, bestetik,

Nafarroako Museoak biltzen dituen lanak bisitatuko dira igandean, 12:30ean. Huarte Zentroak “Esan, isildu. Trazua eta zuloa” ilustrazio-laborategia hartuko du larunbatean, 11:15ean, bai eta “Gorputz airisak” egoitza artistikoa larunbatean eta igandean, Irato Gorostidi artistaren eskutik, HABITACIÓN programaren barruan.

Antzerkia “Martin Zalakain” lanaren eskutik iritsiko da aste honetan Baluarteira, larunbatean, 20:00etan; euskaraz izango da, eta Juan Antonio Urbeltzek egin du koreografia. Zineari dagokionez, Nafarroako Filmotekak film hauek proiektatuko ditu: “De entre los muertos (Vertigo)”, asteartean; “Con la muerte en los talones”, asteazkenean; “Perurena”, ostegunean; eta “La novia de Frankenstein”, ostiralean. Musikak hiru hitzordu ditu Baluartean: Gustavo Díaz-Jerez piano-jotzailea, asteartean, Espainiako Orkestra Nazional Gaztea, asteazkenean, eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, ostegun eta ostiralean.

[Esteka](#) honetan duzu kultur programazio osoa:

